

Yon Etxebeste gogoratuz

José Luis Insausti Urigoitia

Oro har zaila egiten da norbaiti buruz hitz egitea hark uzten gaituenean. Gure bizitzako hainbat une harekin pasatu ditugunontzat, berriz, are zailagoa. Oroitzapenak eta pasadizoak nahasten dira, baina batez ere agur hitza dabilkizu gogoan, agur pertsona horri, eta utzi digunarekin aurrera egiteko kemenik ez badugu, agur hura izan den guztiari.

Yon Etxebeste Gaztelumendiz ari naiz. Hendaian hil zen 2009ko ekainaren 8an, 81 urte zituela, eta haren gorpua Zentolen hilerrian erre zuten.

Yon Pasaian jaio zen 1928an, eta, 3 urte zituela, familia guztiarekin Errenteria-Oreretara joan zen bizitzera, Maria Lezo kaleko 1. zenbakira. Lehen mailako ikasketak Errenteria-Oreretan egin zituen eta, ondoren, Victorio Luzuriagan hasi zuen bere lan-bizitza.

1936ko kolpe militarren ondorioz, arazo ugari izan zituzten, gure herriko hainbat eta hainbat familiak bezalaxe. Yonen aita atxilotu eta San Kristobal espetxera eraman zuten.

Handik urte batzuetara, 1945ean hain zuzen ere, Biriatura joan zen, han arreba bat bizi baitzuen. Bertan, urtebete igaro eta Armentières-era joan zen, flandestarren lurraldera. Han, garrantzi handiko enpresa batean hasi zen lanean eta berehala lortu zuen denek maite izatea. Yon futbolari bikaina izan zen eta hainbat futbol-taldetan jardun zuen. Aparteko jokalaria izan zen talde guztietan eta gainera kategoria guztietako kiroltasun eta gizatasun handieneko jokalaria saria lortu zuen.

Han, jatorriz flandestarra zen Margarita ezagutu zuen, eta harekin ezkondu zen. Senar-emazteek bi seme eta alaba bat izan zituzten.

Yonek izugarri maite zuen bere ama- eta aita-hizkuntza, euskara alegia. Haren seme-alabek euskara, frantsesa eta flandesera ikasi zituzten eta gaur egun haren biloba eta birbilobek euskaraz egiten dute.

Armentières-en Eaux Maison Basque izeneko taberna bat izan zuen, Frantziako Tourrera joandako txirrindulari euskaldun askoren bisita jasotzen

zuen eta etapa Lillera iristen zenean, besteak beste Luis Otaño bizilaguna ere joaten zitzaion bisitan

1987an Yon familiarekin Euskal Herrira itzuli zen, Hendaia joan ziren bizitzera. Astero-astero Errenteria-Oreretara etortzen zen txikitako lagunak ikustera. Hauek izan zituen, besteak beste, lagun minak: Juanito Alberdi (+), Martin Mitxelena, Xabier Amoriza, José Cruz Sarasola, etab.

Madalenak ere oso garrantzitsuak ziren Yonen bizitzan, eta emaztearekin batera urtero etortzen zen. Niri dagokidanez, esan beharra daukat Yon Etxebeste 1988. urtean-edo bere eta nire lagun handia den José Cruz Sarasolaren bitartez eza-gutu nuenetik, adiskidetasun-harreman handia izan genuela eta gauza ugari partekatu genuela, baina bere herriaren, Euskal Herriaren, interesen aldeko borrokan tinko jarduteak hunkitu ninduela gehien.

Yonek argi baino argiago zuen zer egin behar zen eta hil baino hilabete batzuk lehenago hau esan zidan: "garrantzi handiko etapan gaude; izan ere, Euskal Herria Nazio gisa egituratzeko aukera dugu; horretarako ez dago formula zehatzik, alegia ez dago hau edo hori egin behar da esaterik; kontua da Euskal Herria eraikitzen euskal herritar guztiek parte hartzea".



Jose Cruz Sarasola

1987ko Aberri Eguna Gernikan. Lau flandestar parlamentari, Yon Etxebeste eta Jose Cruz Sarasola.

Hemen tokia dugu bertan bizi nahi dugun guztiontzat eta, jakina, euskal herritar guztiok erabaki behar dugu etorkizunean zer bizitza politiko eta soziala izango dugun.

Euskal Herriaren kausaren aldeko izan zituen lotura eta konpromisoa nabarmendu nahi nuen, eta zergatik izan zen kausa horren zerbitzurako ekintza-gizona eta zergatik borrokatu zuen horren alde bere bizitzaren azken uneetaraino: Euskal Herria maite zuelako.

Lagun handia, gizon ona eta gizon apala izan zela argi utzi nahi nuen. Besterik ez. Agur Yon, betira arte.

Una lágrima rodó

Se escapó de mis ojos
Una lágrima triste
Que rodó en mi mejilla
Cuando te fuiste
No dos sino una
Solamente rodó
Después del silencio
Que produjo tu adiós
Y no quise limpiarla
Y ocultar así mi herida
Sino valorarla
Después de tu partida
Solo eso quedaba
Solo eso faltó
Por la amistad que hubo un día
Una lágrima rodó.



Jose Cruz Sarasola

Yon Etxebeste bere akordeoiarekin. Ondoren Jose Cruz Sarasola eta Miren, bere emaztea.